


BARNE-ARAUBIDEKO
ERREGELAMENDUA
ZAMUDIO K.E.



OINARRI-FUTBOLA

AURKIBIDEA

I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

II. TITULUA. OSAERA ETA EGITURA

I. KAPITULUA. Gobernu-organoak

II. KAPITULUA. Kide bakarreko beste organo batzuk

III. KAPITULUA. Entrenatzaileak

IV. KAPITULUA. Jokalariak eta taldeak

V. KAPITULUA. Guraso ordezkariak

III. TITULUA. DIZIPLINA-ARAUBIDEA

I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

I. ARTIKULUA. HELBURUA

Barne-araubideko erregelamendu honetan, ZAMUDIO K.E.ren (hemendik aurrera, Kluba) antolamendua eta funtzionamendua arautu dira indarrean dagoen kirol-legeriaren esparruan, klubaren ideia-oinarrietan ezarritakoari erabat loturik.

Izan ere, Klubak helburu hau baino ez du izango gomendio, arau, zigor edo jarduketak ematen dituenen: laguntza ematea klubeko kide guztiek, hautatu duten kirol motaren bitartez, modu egokian gara ditzaten beren nortasuna eta giza balioak.

Plan hori gauzatzearren, antolaketa-egitura bat eratu du klubak; egitura hori koordinatzaileak, entrenatzaileak eta ordezkariak osatuko dute. Lehenago aipaturiko helburu nagusi horretan oinarriturik eta jardunbide batzuei jarraiturik, oinarritzko erantzukizun hauek izango dituzte beren gain:

- a) Beren kargu dituzten taldeetako kide guztiei prestakuntza teknikoa, prestakuntza taktikoa eta kirol-prestakuntza ematea.
- b) Kategoria eta adin guztietako talde eta jokalarien kudeaketa, jarraipena eta kontrola egitea.
- c) Kluba ordezkatzea Bizkaiko Futbol Federazioaren eta Euskadiko Futbol Federazioaren aurrean.
- d) Klubaren kirol-prestigioari eustea bere kargu dituen talde guztiek parte hartzen duten kategoria eta lehiaketa guztietan.

II. ARTIKULUA. APLIKAZIO-EREMUA

Erregelamendu hau eremu hauetan aplikatuko da:

a) Pertsonak:

1. Klubean inskribatuta dauden kirolariak, inskripzio-unetik baja eman arte.
2. Klubaren pertsonal tekniko guztia.
3. Jokalarien guraso guztiak, seme-alabak klubean inskribatzen diren unetik baja eman arte, aplikagarri diren alderdi guztiei dagokienez.
4. Klubaren pertsonal laguntzailea.
5. Edozein arrazoirengatik aldi baterako klubeko kide diren pertsona edo entitate guztiak.

b) Toki hauek:

1. ZAMUDIO K.E.k Zamudion dituen kirol-instalazioak.
2. Klubeko kide guztiak edo haietako batzuk noizbehinka edo ohikotasunez kirol-jarduerak egitera joaten diren kirol-instalazio, lokal, eraikin edo espazioak.
3. Ondorio guztietarako, koordinatzaileak, ordezkariak, entrenatzaileak eta jokalariek zuzeneko erantzukizuna izango dute beren familiakoek, adiskideek, ezagunek edo beraiekin harremanik duen edozein pertsonak eginiko egintzetan. Lehenago adierazitako pertsonak betetzen ez badituzte araudi honetan jasotako edozein betebeharrak eta, bereziki, ondorengo hauek:
 - a) Lehiaketaren arauak eta erregelamendua gordetzea eta betetzea.
 - b) Kirol-jarduera beharrezko arduraz eta ahaleginez ez garatzea.
 - c) Pertsonen eta klubaren irudiari errespetua erakustea.

Orduan klubak ahalmena izango du zuzeneko erantzukizuna duen pertsonari zigortzeko eta, jokabidea errepikatuz gero edo kasua oso larria izanez gero, taldetik kanpora bidaltzeko.

II. TITULUA. OSAERA ETA EGITURA

I. KAPITULUA. GOBERNU-ORGANOAK

III. ARTIKULUA. EGITURA

3.1 Klubak ondoren aipatzen diren gobernu-organoak izango ditu:

- a) Kide anitzekoak: Batzar Nagusia eta Zuzendaritza-batzordea:
- b) Kide bakarrekoak: presidentea, presidenteordea, diruzaina eta kideak.

3.2 Aurreko zenbakian ezarritakoak ez du eragotziko klubak beste organo batzuk edukitzea eta organo horiek beren funtzioak edukitzea; esaterako, koordinatzailea, bere eskumenen eremuan.

IV. ARTIKULUA. JARDUTEKO PRINTZIPIOAK

4.1 Gobernu-organoak begiratuko dute Klubaren jarduerak proiektuaren (idea-oinarriak) arabera egin daitezela, era horretan bete ahal izango baitira aurreikusitako helburuak.

4.2 Klubaren gobernu-organoak bermatuko dute, bere eskumenen esparruan, baliatu ahal izan daitezela jokalariei, entrenatzaileei, ordezkariak eta gurasoei aitorturiko eskubideak, eta begiratuko dute, era berean, bete daitezela dagozkien eginbeharrak. Era berean, ahalbidetuko du Klubeko kide guztiek hartzea parte Klubaren bizitzan, kudeaketan eta ebaluazioan.

4.3 Zuzendaritza-batzordearen barruan, diziplina-batzorde bat eratu ahal izango da eta, Zuzendaritza-batzordeak eskuordetza emanik, ebartziko ditu falta larritzat edo oso larritzat jotzen diren egitateengatik irekitako espedienteak. Honako hauek osatuko dute diziplina-batzorde hori: Klubeko presidentea edo eskuordeturiko pertsona, koordinatzailea eta Zuzendaritza-batzordeko kide bi.

II. KAPITULUA. KIDE BAKARREKO BESTE ORGANO BATZUK

V. ARTIKULUA. KOORDINATZAILEA

Koordinatzaileari eginkizun hauek dagozkie:

- 1) Klubaren Zuzendaritza-batzordearen erabakiz hautatu eta kargugabetuko da eta presidentea izendatu edo kenduko du kargutik.
- 2) Diziplina-jarduera guztiak zuzendu, koordinatu eta kontrolatuko ditu indarrean dauden xedapenen arabera, hargatik eragotzi gabe Zuzendaritza-batzordearen eskumenak.
- 3) Haren helburu nagusia da: kategoria eta adin guztietan, talde eta jokalarien kudeaketa, jarraipena eta kontrola egitea, zaindu beharko baitu klubeko jokalaria guztien prestakuntza integrala bete dadin.
- 4) Aldi berean, klubarekin loturiko beste edozein jarduera egin ahal izango du.
- 5) Denboraldi bakoitzaren hasieran, kirol-helburuak landu beharko ditu bere laguntzaileekin; gainerako kideei kirol-helburu horiek jakinarazi beharko dizkie.
- 6) Bere eskumenen esparruan, Zuzendaritza-batzordearen erabakiak gauzatu ditu.
- 7) Prest egongo da beti entrenatzaileen zalantzak, iruzkinak, eskaerak edo erreklamazioak ebazteko.
- 8) Ahalmena du arrazoi tekniko edo kirol-arrazoiengatik jokalaria talde batetik beste batera igaroarazteko, bai eta kategoria batetik beste batera igaroarazteko ere, betiere Bizkaiko Futbol Federazioaren araudiak hautsi gabe.
- 9) Ahalmena du beren eginbeharrak betetzen ez dituzten entrenatzaileak kargutik kentzeko, erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera.

10) Bere betebeharra da Klubeko beste kide guztiei eskaturiko manerekin, begirunearekin eta neurritasunarekin jokatzeko edozein egoeratan.

11) Koordinatzailea behartuta dago erregelamendu honetan ezartzen zaizkion gomendio eta betebeharrak eta klubeko Zuzendaritza-batzordeak ezartzen dizkionak betetzera.

12) Ahalmena du entrenatzaileak, laguntzaileak (2. entrenatzailea), ordezkariak eta antolakuntzako kide berriak proposatzeko.

III. KAPITULUA. ENTRENATZAILEAK

VI. ARTIKULUA. IZAERA

6.1 Entrenatzaileak klubeko kide batzuk dira, kirol-eremuan irakaslan egiten dutenak Klubaren ideia-oinarrietan ezarritako hezkuntza- eta kirol-helburuak gauzatzeko.

Jokalariengandik hurbil daudenez, jokalariei hezibidea emateko gune nagusia osatzen dute, eta koordinatzailearen nahiz Zuzendaritza-batzordearen konfiantza osoa du.

6.2 Zuzendaritza-batzordearen eskumena da entrenatzaileak izendatzea, koordinatzaileak berariaz proposaturik.

VII. ARTIKULUA. ENTRENATZAILEEN ESKUBIDEAK

Entrenatzaileek eskubide hauek dituzte:

a) Beren funtzioak klubaren ideia-oinarriaren arabera betetzea, izendatzen zaizkion lan-taldeetan.

b) Dagokionarengandik informazioa jasotzea klubari oro har eta euren bereziki dagozkien gaiez.

c) Klubaren gainerako estamentutik eta kideengandik tratamendu zuzena eta begirunezkoa jasotzea.

d) Klubaren baliabide materialak eta instalazioak erabiltzea, haien erabilerari buruzko arauak jarraituz, klubaren helburuak betetzeko.

e) Klubeko kide bakarreko eta kide anitzeko organoen aurrean, kirol arloko eskaerak, iradokizunak eta kexak aurkeztea idatziz.

VIII. ARTIKULUA. ENTRENATZAILEEN EGINBEHARRAK ZAMUDIO K.E. futbol-eskolaren barne-araubideko erregelamendua

Entrenatzaileek eginbehar hauek dituzte:

a) Beren kargu dituzten jardueren urteko plangintza egitea eta, koordinatzaileak onartu ondoren, ezarritako programazioa garatzea eta betetzea.

b) Programaturiko jarduera guztietan eta behar bezala deituriko jardueretan parte hartzea, salbu eta arrazoi justifikaturik dagoenean.

c) Alderdi pertsonalari, teknikoari eta kirol alderdiari dagokienez, duintasunez eta klubaren ideia-oinarriak gordez jokatzeko beren eginkizunak garatzea; berdintzat jotzeko dute klubeko estamentu eta kideekin eta, bereziki, kirolariek.

d) Dagozkien eginkizunak eta jarduerak gaitasunez, zehaztasunez eta puntualtasunez betetzea.

e) Kirolarien kontsultei erantzutea, haien ahalegina akuilatzea eta bizikidetzaren eta klubeko ideia-oinarrietan adierazitako balore guztien alde jokatzeko.

f) Kirolarien gurasoen kontsultei erantzutea, beren eskumenen esparruan heziketa partekatuz.

g) Klubaren diziplina-erregimena aplikatzea beren eskumenen mailan.

h) Entrenamendu-egunkaria betetzea, alderdi teknikoari eta kirolarien asistentziari eta jokoerari dagokienez.

i) Kirol-eremua garbi eta txukun edukitzea, bertan egoten den bitartean.

- j) Beharturik daude entrenamenduak eta partidak egiteko behar diren elementuak (sareak, baloiak, aulkiak, uztaiak, atea, etab.) ipintzera eta gordetzera.
- k) Zuzendaritza-batzordeak hartutako erabakiak errespetatzea eta betetzea.
- l) Dagokion jarduerarako egokia den kirol-ekipamendua eramatea beti, hartarako behar diren zehaztasunak betez betiere.

IV. KAPITULUA. JOKALARIAK ETA TALDEAK

IX. ARTIKULUA. ESKUBIDEAK

9.1 Jokalariak bere nortasuna osotara garatzea bermatuko dion prestakuntza jasotzeko eskubidea du.

9.2 Kirolari guztiek kirol-maila guztietara iristeko aukera berdinaraz izateko eskubidea dute. Muga bakarrak beren aprobetxamendutik eta kirolerako trebetasunetatik eratorritakoak izango dira.

Eskubide hori bermatzearen, ZAMUDIO K:E.k honako hauek emateko konpromisoa hartzen du:

- a) Talde bakoitzeko entrenatzaile bat.
- b) Kirol-instalazio egokiak.
- c) Kirol-ekipamendua.
- d) Entrenamendu-ordutegi bat.
- e) Talde guztiek lehiaketa ofizialetan hartzea parte.
- f) Behar den kirol-heziketa, kirolariaren prestakuntza integrala osatzeko.

9.3 Jokalari guztien eskubidea da beren osotasun pertsonal eta morala eta duintasun pertsonala errespetatuak izatea, eta ezin izango zaie umiliazio fisiko edo moralik egin.

9.4 Kirolariek eskubidea dute klubaren funtzionamenduan parte hartzeko, talde bakoitzeko kapitainak izendatuz.

9.5 Taldeko kapitaina.

Izendapenak:

- 1) Talde bakoitzak kapitain bat izendatuko du denboraldi bakoitzeko, bere entrenatzaileak proposaturik eta jokalariek guztiek bozketa eginik.
- 2) Koordinatzaileak aldatu ahal izango du izendapena egiteko sistema, hala egitea justifikatzen duen inguruabarrik bada.
- 3) Kasu berezi batzuetan, kapitain kargua kendu ahal izango zaio kargu hori betetzen duen jokalaritari, bere funtzioak modu egokian betetzen ez baditu.

Funtzioak:

- 1) Kapitaina entrenatzailearen eta taldekideen arteko lotura da; era berean, taldekideen bozeramailea ere bada.
- 2) Egoera jakin batzuetan, ezinbesteko arrazoiengatik, entrenatzaileari dagozkion funtzioak egin beharko ditu (berotze-ariketak edo entrenamenduaren zati bat zuzentzea, aldaketak partidetan, etab.).
- 3) Bere taldekide guztiei garaiz jakinarazi behar zaien zeintzuk diren partiden ordutegiak, deialdiak, joan-etorriak, etab.
- 4) Eredugarria izango da jokaerari, dedikazioari, ahaleginari eta motibazioari dagokienez, bai entrenamenduetan, bai partidetan eta bai taldea dagoen edozein egoera eta lekutan.

9.6 Klubeko kide guztiak beharturik daude barne-araudi honetan futbolariantzat ezarritako eskubideak errespetatzera.

X. ARTIKULUA. EGINBEHARRAK

10.1 Jokalariek eginbehar hauek dituzte:

a) Aurretiaz ezarritako entrenamenduetara joatea, ahaleginduz eta alderdi guztietatik beren burua behartuz ikastera eta hobetzera.

b) Jokalariak erabat ekipaturik eta prest egon beharko dute entrenamendua ordu-orduan hasteko; debekatuta dago soinean uztaiak, *piercingak*, belarritakoak eta antzekoak eramatea.

c) Entrenatzaileak erabakitako aurrerapenez deituriko partida guztietara joatea, klubak emandako kirol-jantziak soinean dituztela. Kirol-jantzia identifikazio-elementu nagusia izanik, jokalariak beharturik daude soinean eramatera.

d) Entrenamendu eta partidetara joan ezin badira, justifikatzea zergatik ez diren joan, entrenatzaileari beharrezko aurrerapenarekin jakinaraziz (entrenamendua edo partida egin baino gutxienez egun bi lehenago), salbu eta ezinbestekoak diren arrazoiak izaten direnean.

* Arrazoi justifikatuzat joko dira:

- Gaixotasuna
- Familia-arrazoiak
- Ikasketa-arrazoiak.
- Ezartzen diren beste arrazoi batzuk.

Edozein modutan, entrenatzaileak balioetsiko du nolako ahalegin osagarria egiten duen jokalariak entrenamendu guztietara joateko, eta hori erabakigarria izan daiteke deialdiatarako eta partidetan titularra izateko.

* Ez dira arrazoi justifikatuzat joko:

- Aurreko lerroetan sartu ez direnak
- Beste jarduera batzuetan aritzea
- Hutsegiteak sarri egitea.

e) Adierazitako orduan garaiz heltzea entrenamenduetara eta deituta dauden partidetara.

f) Klubaren kirol-materiala eta haren instalazioak zaintzea, erabilera egokia eta zuzena eginez.

g) Jendetasunezko eta errespetuzko jokaera izatea entrenamenduetan, partidetan, beste jokalariekin, lagunekin, arbitroekin, entrenatzaileekin eta klubarekin loturiko beste edozein pertsonarekin, eta ordezkatua izan ondoren aulkia ez uztea, salbu eta entrenatzaileak baimentzen dienean.

h) Kirol-jarduera denboraldi osoan garatzeko konpromisoa hartzea, klubaren kirol-interesei kalterik egin gabe.

10.2 Jokalarien betebeharra da bizikidetzako arauak klubaren barruan nahiz kanpoan betetzea. Betebehar hori puntu hauetan gauzatu behar da:

a) Klubaren ideia-oinarriak errespetatzea

b) Klubaren ondasun materialak eta instalazioak errespetatzea eta egoki erabiltzea.

c) Klubaren kide bakarreko eta kide anitzeko organoek harturiko erabakiak betetzea.

d) Ez jokatzeari, entrenatzeari edo frogarik egiteari beste klub batzuekin, salbu eta klubak berak idatziz baimentzen duenean.

V. KAPITULUA. GURASO ORDEZKARIAK

XI. ARTIKULUA. GURASOAK

11.1 Jokalari bat klubean inskribatzen bada, horrek esan nahi du gurasoak klubaren ideia-oinarriak eta gainerako arauak ezagutu eta onartzen dituztela eta saiatuko direla beren seme-alabek bete ditzaten.

11.2 Gurasoen eskubidea da informazioa jasotzea beren seme-alaben kirol-bilakaerari eta jokaerari buruz.

11.3 Araudi honetan ezarritako gurasoen eskubide eta betebeharrak ikaslearen edo jokalariaren tutorearen edo legezko ordezkariarenak direla ulertuko da, gurasoak falta badira.

11.4 Denboraldi bakoitzaren hasieran, klubak eskaturiko identifikazio-datuak, administrazio-datuak eta dagozkion baimenak emango dituzte.

11.5 Beren erantzukizuna izango da klubak eskaturiko agiriak indarrean egotea eta ezarritako epeen barruan ematea.

11.6 Klubak erabaki eta eskaturiko ordainketak ezarritako forma eta epeetan egiteko konpromisoa hartzen dute. Edozein ordainketa itzultzen bada, Zuzendaritza-batzordeak fitxa erretiratuko du harik eta dagozkion errekaruekin (interesak) ordaindu arte.

11.7 Denboraldi bakoitzaren hasieran bildu beharko dute eta euren artean ordezkari bat eta haren ordezkari bat aukeratu dituzte; ordezkari hori deitzen zaion bileretara joango da, gurasoen eta Zuzendaritza-batzordearen arteko lotura gisa. Gehituriko beste funtzio bat izango da ordezkari horrek lankidetzan jardungo duela entrenatzailearekin eta taldeko laguntzaileekin entrenamenduetan nahiz partidetan.

11.8 Ahal duten neurrian, saiatuko dira taldearekin batera joaten eta jokalaria kanpoko zelaietara eramaten laguntzen.

11.9 Entrenamendu eta partidetan, entrenatzaileei eta jokalariei eskaturiko jokaera berdina izango dute.

11.10 Entrenamenduak edo partidak egiten direnean, atsedenaldiak barne, ez diete jokalariei edo entrenatzaileei batere aholkurik edo gomendiorik emango entrenatzailearen eskumen eskusibokoak diren gaiei buruz.

XII. ARTIKULUA. GURASO ORDEZKARIAK

12.1 Kirol-denboraldi bakoitzaren hasieran, nahitaezkoa izango da taldeko jokalarien gurasoen artetik guraso ordezkari bat aukeratzea; aukeratuak Federazioaren fitxa izango du.

12.2 Guraso ordezkari funtzio hauek betetzea dagokie:

a) Gurasoen eta taldeko entrenatzailearen artean lankidetzaz-egokia lortzea.

b) Entrenatzailearekin lankidetzan arituko da taldea bide onetik joan dadin eta klubaren materialaren eta instalazioen egoera ona zainduko du zelaiko ordezkaria denean.

c) Bozeramaile jardungo du gurasoen koordinatzailearen eta jokalarien legezko ordezkarien aurrean. Begiratu du haiek ez daitezela sar jokalaria-zerrendaren eta antolaketaren gai teknikoetan.

d) Gurasoek batzordeari helarazi nahi dizkioten era guztietako iradokizun, kexa eta oharrak jakinaraziko dizkio koordinatzaileari, batzordeak behar diren neurriak har ditzan, hala badagokio.

e) Bizkaiko Futbol Federazioaren araudiak ematen dizkion eginkizunak egingo ditu.

III. TITULUA. DIZIPLINA-ARAUBIDEA

XIII. ARTIKULUA. DEFINIZIOA

13.1 Araudi hau aplikagarri izango zaie klubeko jokalari guztiei.

13.2 Zuzendaritza-batzordeko kideek, orokorrean, eta koordinatzaileak eta entrenatzaileek, bereziki, arreta berezia jarriko dute harreman eta lankidetzaz etengabearen bitartez araudi honetako diziplina-jarduketak aurreikusteko.

13.3 Hargatik eragotzi gabe ondoren beste egintza batzuk agintzea, entrenatzaileek dagozkion neurriak hartu ahal izango dituzte taldearen barruan ordena zaintzeko; neurri horiek koordinatzaileari jakinaraziko dizkio gero.

XIV. artikulua. ARAU-HAUSTEAK

14.1. Sailkapena:

Hutsegiteak izango dira:

- arinak
- larriak
- oso larriak

14.2 Falta arinak dira:

- a) Justifikatu gabeko puntualtasun-faltak.
- b) Entrenamendu eta partidetara huts egitea, hutsa justifikatu gabe, hutsegitea errepikatzen ez bada.
- c) Entrenamendu eta partidetara huts egingo duela edo beste edozein anomalia behar besteko aurrerapenez ez jakinaraztea entrenatzailea, jakinarazpena posible bada.
- d) Entrenamendu eta partidetan jarrera pasiboan egotea.
- e) Errespeturik ez erakustea taldekideei edo entrenatzaileari eta kirol arloko arduradunei entrenamenduetan, partidetan eta bidaietan, edota beste jokalaria batzuei, arbitroei, etab.
- f) Diziplinarik gabeko egintza, irain edo ofentsa ez-larriak.
- g) Klubaren jardueren bilakaera normala arinki aldarazten duen justifikaziorik gabeko edozein egintza.

14.3 Falta larriak dira:

- a) Behin eta berriro entrenamendu eta partidetara huts egitea, hutsa justifikatu gabe.
- b) Behin eta berriro eta etengabe errespeturik ez erakustea taldekideei edo entrenatzaileari eta kirol arloko arduradunei, eta edozein jokaera ez-zuzena eta errespeturik gabeko erabiltzea entrenamenduetan, partidetan eta bidaietan, edota beste jokalaria batzuei, arbitroei, etab.
- f) Diziplinarik gabeko egintza, irain edo ofentsa larriak egitea klubeko kideei eta beste batzuei, eta ondorioz klubaren irudia kaltetzea.
- d) Agresio fisiko larria egitea klubeko edo beste klub batzuetako kideei, arbitroei, ikusleei, etab.
- e) Klubaren jardueren bilakaera normala modu larrian aldarazten duen justifikaziorik gabeko edozein egintza.
- f) Behin eta berriro sistematikoki falta arinak egitea kirol-denboraldi baten barruan.

14.4 Falta oso larriak dira:

- a) Diziplinarik gabeko egintza, irain edo ofentsa oso larriak egitea klubeko kideei edo beste batzuei, eta ondorioz klubaren irudia kaltetzea.
- b) Agresio fisiko oso larria egitea klubeko edo beste klub batzuetako kideei, arbitroei, ikusleei, etab.
- c) Hiru falta larri egitea kirol-denboraldi baten barruan.

XV. ARTIKULUA. ZIGORRAK

Aipaturiko faltak egiteagatik zigor hauek ezarriko dira:

15.1 Falta arinengatik zigor hauetariko bat ezarri ahal izango da kasu bakoitzari dagozkion inguruabarrak kontuan izanik:

- a) Kargu-hartze pribatua.
- b) Kargu-hartze idatzia, gurasoei jakinaraziko zaiena.
- c) Kirol-jarduera etetea zortzi egunetik gorakoa izango ez den epe batean.

15.2 Falta larriengatik:

- a) Ohartarazpena, behin eta berriro huts egiten bada hutsa justifikatu gabe; ohartarazpen horretan, entrenatzaileak eta koordinatzaileak jarrerari buruz eginiko txosten zehatz bat sartuko da.
- b) Jokalaria taldez aldatzea, ahal baldin bada.
- c) Kirol-jarduerarako eskubidea etetea hamabost egunetik gorakoa izango ez den epe batean.

15.3 Falta oso larriengatik:

- a) Kirol-jarduerarako eskubidea etetea hamabost egunetik gorakoa izango ez den epe batean.
Zuzendaritza-batzordeak jokalaria berriro hartzea erabaki ahal izango du, aurretiaz eskaera egiten bada eta jarrera hobetu dela egiaztatzen bada.

XVI. ARTIKULUA. ZIGORRAK EZARTZEKO ESKUMENA

16.1 Koordinatzaileak izango du, Zuzendaritza-batzordeak eskuordeturik, arin gisa sailkaturiko faltei dagozkien zigorrak ezartzeko ardura; Zuzendaritza-batzordeko presidenteari emango dio horren berri eta hark Diziiplina-batzordeari emango dio horren berri; azken hori presaz bilduko da, hala badagokio, koordinatzaileak erabakitakoa berresteko. Ondoren, Zuzendaritza-batzordeari jakinaraziko zaio egiten duen lehen bileran.

16.2 Diziiplina-batzordeak kide hauek izango ditu:

- Klubeko presidentea edo eskuordeturiko pertsona
- Zuzendaritza-batzordeko kide bi
- Koordinatzailea

XVII. ARTIKULUA. ZEHAZPEN-PROZEDURA

17.1 Falta larri eta oso larrien kasuan, Diziiplina-batzordeak instruktore bat izendatuko du bere kideen artetik, eta instruktore horrek irekiko du espedientea, emango die entzuerara jokalaria, haren guraso edo legezko ordezkari, entrenatzaileari, koordinatzaileari eta bere iritziz datu interesgarriak eman ditzaketen pertsonari, azkenean espediente horri buruzko txosten bat igorriko baitio Diziiplina-batzordeari.

17.2 Espedientea ahalik eta eperik laburrenean instruitu beharko da eta edozein kasutan ez da hamar egunetik gorakoa izango faltaren berri izaten den unetik.

17.3 Ondoren, entzuerara emango zaio jokalaria, eta, adingabea bada, haren gurasoei, eta jakinaraziko zaie zein falta egozten zaion eta zein den idatziz hitzarturiko zigorroproposamena. Espedientea instruitzeko epea ez da zazpi egun baliodunetik gorakoa izango.

17.4 Zuzendaritza-batzordeak erabaki ahal izango du, Diziiplina-batzordeak proposaturik, zehapen-espedientea artxibatzea eta largestea, inguruabarrek hala aholkatzen badute.

17.5 Diziiplina-espedientea ebazteko unean, eta dagozkion zigorren aplikazioa mailakatzearren, kontuan hartuko dira jokalaria inguruabar pertsonalak, familiarrak eta sozialak.

17.6 Espedientea gehienera ere hilabeteko epean ebatzi beharko da, espedientea hasten denetik kontatzen hasita.

17.7 Ezarritako zigorren aurka errekurtoa jarri ahal izango da Zuzendaritza-batzordearen aurrean.

Zamudio, 2013ko uztailaren 17a
Presidentea
Ruben Glera Dañobeitia